



## 2. KOMUNIKATZEN IKASI


### Sarrera

Komunikazioa zentzu zabalean ulertzen dugu Txanela Proiektuan. Hitzeko hizkuntza, ahozkoa nahiz idatzia, giza komunikaziorako baliabide nagusienetakoa dugu eta, beraz, ama hizkuntzan behar bezalako kompetentzia edukitzea oinarritzkoa dugu. Horrez gain, ordea, gaur egungo eta etorkizuneko gizartean ezinbestekoa da hizkuntza baliabide eleanitzak izatea; hau da, euskara lehenengo hizkuntza nagusitzat hartuta, gaur egungo errealitate aleaniztunean malgutasunez moldatzeko aukera izatea.

Multimedia gizartean bizi gara, eta hizkuntza mota ezberdinen arteko integrazioak komunikazio modu berriak eta indartsuak sortzen ditu. Hitzeko hizkuntzan ez ezik, ikus-entzunezko hizkuntzetan eta hitzik gabeko hizkuntzetan kompetentzia izan behar dugu: musika ulertzeko eta musikaren bidez adierazteko, dantzaren eta dramatizazioaren bidezko gorputz adierazpenerako, adierazpen plastikorako, zenbakizko eta bestelako hizkuntza grafikoen ulermen eta erabilerarako... Horrez gain, ezinbestekoa da ikus-entzunezko hedabideen eta Informazio eta Komunikazio Teknologien bidez ulertzeko eta adierazteko kompetentzia izatea.

Inguruan dugun errealitate mediatikoaren eta linguistikoaren aurrean kontzientzia sozio-komunikatiboa eratu behar dugu, egoera bakoitza eta jasotako mezu bakoitza kritikoki balioesteko eta erabaki autonomoak hartzeko ezagutzen ditugun hizkuntzak, hedabideak eta teknologia berriak erantzukizunez erabil ditzagun.

Aurreko guztia kontuan izanik, hizkuntza gaitasun eta baliabideak, zer nahi direlarik ere hautatzen ditugun hizkuntza motak, modu eraginkorrean, integratuan, arduratsuan eta kritikoan erabiltzen ikastea izango da komunikatzen ikastea.



- **Ikuspegi komunikatiboa Txanela Proiektuan**

Komunikazioa ezinbesteko osagaia da Txanela Proiektuko proposamenetan; ezin da Txanela Proiektua ulertu komunikaziorik gabe. Ikuspegi komunikatiboak, beraz, Txanela Proiektuko proposamen didaktiko guztiak bustitzen ditu.

Batetik, Hizkuntza eta Literatura irakasgaiaren lanketarako metodologia hizkuntza baliabideen erabileran oinarritzen da, beraz, metodologia komunikatibo batean. Txanelako Hizkuntza Curriculuma (etapa eta ziklo amaierako helburuak eta horien ebaluazio irizpideak, edukiak...), gainera, hizkuntza kompetentzien arabera antolatuta dago, eta horrek kompetentzia horien lanketa eta garapenaren jarraipena errazten du.

Horrez gain, komunikazioa beste irakasgai eta proposamenetako zutabe nagusietako bat da. Matematika arloaren curriculumaren antolaketan, esate baterako, komunikazioaren osagaiak diren ulermena eta adierazpena oinarritzko gaitasunak dira. Gauza bera gertatzen da Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera irakas-arloan ere, edota gorputz eta musika adierazpena zein elkarbizitzaren lanketarako egiten diren proposamen metodologikoetan ere. Gainera, arlo ezberdinetako edukien lanketa integratuak, globalizazioak, alegia, indartu egiten du ikuspegi komunikatibo hori.

## **Komunikatzen ikasteko kompetentzia orokorrak**

- 2.1. AHOZKO HIZKUNTZA**ri dagozkion kompetentziak
- 2.2. HIZKUNTZA IDATZI**ari dagozkion kompetentziak
- 2.3. HITZIK GABEKO HIZKUNTZA**ei dagozkien kompetentziak
- 2.4. GIZARTE KOMUNIKABIDEEN BALIABIDE**ei dagozkien kompetentziak
- 2.5. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGI**ei dagozkien kompetentziak
- 2.6. KONPETENTZIA SOZIO-KOMUNIKATIBO**ari dagozkion kompetentziak


## 2.1. AHOZKO HIZKUNTZAri dagozkion kompetentzien lanketa Txanelan

- **Ahozko hizkuntza Txanelan.**

Ahozko komunikazioa menderatzea lehenetsuaren kompetentzia da gizakiaren garapenean. Hitz egiten eta entzuten ikasteko proposamen ugari eskaintzen da Txanela Proiektuko materialetan. Ahozko hizkuntzaren lanketa egiten da, bai ohiko ahozko komunikazio egoera informal eta bat-batekoetan, bai erabilera gero eta landuagoak eta formalagoak behar dituzten komunikazio egoeretan ere.

- **Elkarrizketa informala eta Lankidetzan lan egiteko elkarreragina.**

Gelako eguneroko bizimoduan eta lankidetzan egoeretan ahozko hizkuntzaren erabilera gero eta egokiagoak bideratzeko, askotariko proposamen esplizitu eta ongi egituratuak.



**Jarduera**

Komikiko hainbat egoerak eta elkarrizketak unitate honetan landuko dituzun zenbait gauzarekin erlazio zuzena dute. Horiek aztertu eta taldean eztabaidatu ostean, ea gai zaren orrialde bukaerako galderari erantzuteko.

Egin ezazu elkarrizketa talde txikian, honako galdera sorta hauetako bakoitzaren inguruan. Bukarera, talde handian, egin bateratze-lana.

- **Kanpara dezagun sukaldean laborategi batekin...**
  - Ba al dute erlazioen? Zer antzekotasun dute? Zer ezberdintasun? Har itzazu komikiko egoerak, adibideak jartzeko.
  - Komikian, garbitasuna aipatzen da, sukalde-lanari erreferentzia eginez. Garrantzitsua al da zure ustez? Zergatik? Garrantzi bera izango ote du garbitasunak laborategian? Zergatik?
- **Izenburuak honela dio: SUKALDEAN, ZIENTZIA ETA PAZIENTZIA...**
  - Zer adierazi nahi du?
  - Beha leziozko komikiari eta aipa itzazu hor agertzen diren eta pazientzia izatea eskatzen duten egoera guztiak.
  - Zer erlazio dagoela esango zenuke, zientziaren eta pazientziaren artean?
- **lñaxio, Manexen aita, zientzialaria da...**
  - Zertan datza zientzialari baten lana? Zer txosten mota izango da irakurri behar duen hon?
  - Zer adierazi nahi du lñaxiok EZ DEZAGUN ARGINDARRA ALFERRIK XAHUTU ideia horrekin?
- **Manexek eta Aitorrek, jolasean, zientzialarien hizkera dabilite...**
  - Osa ezazu zerranda, bi horiek erabiltzen dituzten hitzen artean, zure ustez, zientzialarien hizkerari dagozkienekin.
  - Ezagutzen al dituzu hitz horien esanahiak? Saia zaituzte igartzeko, baina... ez begiratu, gero, esanahia ez hitzegietan, ezta unitatean ere!
- **Azukre-urra edo itsasoko ura?**
  - Komikian zer gertatu da urarekin? Zergatik ez da inor konturatu?
- **Eztabaida eta liskarra...**
  - Gauza bera al dira eztabaida eta liskarra? Zer esaten zaio eztabaida? Zer liskarra? Zer ezberdintasun dago baterean eta bestearen artean?
  - Zer esan nahi du tematik hitzak? Eta egoskor hitzak? Ba al dute erlazioen eztabaidarekin edo liskarrekin?

6

BAI! ORAIN, ZER?

AZALARI ONGI BEHATU DICT, KOMIKIA IRAKURRI DUT ETA ONDORIOAK ATERA DITUT. BATA ETA BESTEA HARTU DITUT KONTUAN... ETA ORAIN?

ORAIN ZER? ZEUK ESANI ZER USTE DUZU LANDUKO DUZULA UNITATE HONETAN?

(Irudia: Txanela Globalizatua 6, 5. unitatea, 6. or.)

Os reuniréis en pequeños grupos para comentar el ejercicio anterior e intentar extraer conclusiones.

- ¿Qué características de los diferentes pueblos europeos os han llamado más la atención? ¿Por qué?
- ¿Estáis de acuerdo con estas afirmaciones? Justificad vuestras opiniones.
  - Las características típicas de cada pueblo nos dan una idea exacta del mismo.
  - Las características típicas de cada pueblo nos dan algunas ideas verdaderas, pero otras son indudablemente falsas.
  - Las características típicas de cada pueblo, generalmente, son falsas.

(Irudia: *Lengua Castellana 6, 2. unitatea, 23. or.*)

• **Ahozko argudioak.**

Iritzi eta ideiak azaltzea, **justifikatzea**, argudiatzea eta eztatibaidatzea eskatzen duten jarduerak.

**Hitz-errota**

*Jarduera*

Pentsatzea ideiak eratzea, elkartzea eta ordenatzea da gogoeta egitea, hausnartzea...; eta sarritan, zerbaitez gogoetagai izan duzun horretaz, iritzia izatea, uste edo ikuspuntu pertsonal bat edukitzea, hori ere bada.

Batzuen eta besteen iritziaz pare pare jartzen ditugunean, eztatibaidak sor daitezke. Baina, zer da eztatibaida? Gai honetan nolako eztatibaida interesatzen zaigu?

Irakur itazuo eztatibaida hitzaren bi adiera horiek, eta hitz egin, taldean, bi galderei buruz.

- Gairen bati buruz iritzi desberdinak dituzten pertsonen arteko jarduna edo hitzezko **liskarra**. *Eisaitasunezko hitzen eta keinuen bidezko eztatibaida, errieta edo borroka.*
- Pertsona batzuen arteko solasaldi formala, bakoitzak bere iritzien eta besteena aldeko eta kontrako argudioak azaltzea.

• Zer adiera dagokio, zure ustez, unitate honetan interesatzen zaigun eztatibaida motari? Zergatik?

• Zein izango dira unitateko eztatibaiden ezaugarri eta osagai nagusiak?

**SOLASALDI FORMALA**    *aldekoak eta kontrakoak*    **IRITZIAK**    **argudioak**

Eztatibaida, iritziaz eta ikuspuntuak konparatzeko, alderatzeko eta aztertzeo ohiko tresna da zientzien alorrean. Talde-elkarrizketa mota horretan norik bere iritziaz, ikuspuntuak eta ondorioak aurkezten ditu, horien euskari diren argudioak, arrazoiak edo frogak azalduz, eta helburu argi batekin: aztergai den gaia hobeto, osatuago, ezagutzeo asmoarekin.

*"IRITZI ERROTAK", "HITZ ERROTAK"... MAIZ ARITU IZAN GARA, BAI, TALDE ELKARRIZKETAK PAUSOZ PAUSO ANTOLATZEN...*

*...ESAN BEHARREKOAK ONDO PENSATZEN, ETA EGOKI NOLA ESAN AZTERTZEN...*

*...ELKARRIEN JARDUNA BEHATZEN ETA BALIOESTEN...*

**ETA ZUK, ZER DAKIZU?**

...talde-elkarrizketa baten alderdiei buruz?

- Parte-hartzearen prestaketa
- Parte-hartzea
- Solaskidea
- Moderatzailea
- Elkarrizketarako arauak
- Egoki hitz egitea
- Bozeramailea
- Behatzailea


Unitateak aurrera egin ahala sarritan arituko gara eztatibaidan, baina hori bai, aldiro alderdi jakin bati erreparatu; horrela, eztatibaidarako gure gaitasuna landuz eta hobetuz.

13


(Irudia: *Txanela Globalizatua* 6, 5. unitatea, 12. or.)

- **Arretaz entzutea.**

Ahozko testuen ulermen gaitasuna trebatzeko eta garatzeko bitartekoak, eta horien erabilera eraginkor baterako jarraibideak.



(Irudia: *Txanela Globalizatua*, DVDari dagokion ikonoa)



*Jarduera*

Bizi-funtzioen artean dago erlazio-funtzioa ere. Irakasleak ahoz emandako azalpen oinarrituta gogoratuko duzu horretaz aurreko urteetan ikasitakoa.

Behatu orrialde honetako irudiei, eta, ekar ezazu gogora zer den eta nolakoa den bizi-dunen erlazio-funtzioa, irakasleak irakurriko dizun testua kontuan hartuta.

**Ahozko azalpen bat ulertzeko IZAN KONTUAN:**

- **Entzun aurretik:**
  - Entzunaldiaren **helburua argitu** (kasu honetan, bizi-dunen erlazio-funtzioei buruzko ideia argiak gogora ekartzea).
  - **Zer informazio behar duzun argitu** (oraingoan, argazkiak eta argazki-oinak lagungarri izan zaizkizu).
- **Entzun ahala,**
  - **Oharrak idatzi.** Helburua betetzeko baliagarriak izango zaizkizun ideiak, datuak, hitzak, etab. idatzi orri batean, labur, azkar eta, batik bat, irakaslearen hitzei arretarik galduta.
- **Entzun ondoren**
  - Sortzen zaizkizun **zalantzak argitu** (kasu honetan, irakasleari zuzenean galdetuz).
  - Behar duzun **informazioa hautatu eta erabili.**

Otsoek familian ehizatzen dute.


Erleak sozietatetan biltzen dira.

Koralak koloniatan bizi dira.

Arrainak sarda edo talde handietan biltzen dira.

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 6, 6. unitatea, 12. or.)






Escucha en el DVD las explicaciones de la escritora **Toti Martínez de Lezea**: te serán de gran utilidad si vas a imitar su oficio y además te ayudarán a definir lo que es una novela o cuento histórico. Anota en tu cuaderno las ideas que te parezcan interesantes.

Reunidos en grupos, poned en común las ideas que habéis escrito en el cuaderno. Después, el portavoz de cada grupo las dirá en alto ante toda la clase y entre todos elegiréis las más necesarias para este proyecto.

(Irudia: *Lengua Castellana 5, 2. unitatea, 17. or.*)

- **Bakar batek kudeatutako testuen ekoizpena eta Ahozko aurkezpenak.**

Erabilera eremu ezberdinetako ahozko testu-generoen ekoizpen prozesua bideratzeko eta horien jendaurreko azalpenak egiteko baliabideak eta aukerak eskaintzen dituzten jarduerak.



Azal ezazu jendaurrean, zientzialari aditu batek egingo lukeen gisan, landare-zelulak behatzeko egindako esperimentua.

**Ahozko azalpena egiteko IZAN KONTUAN:**

Egitura:

- *Sarrera*: aurkezpena, zer egin den, zer helbururekin.
- *Garapena*: erabilitako materialak, emandako urratsak, egindako behaketak, ateratako ondorioak.
- *Amaiera*: galde-erantzunak, agurra.

(Irudia: *Txanela Globalizatua 6, 6. unitatea, 29. or.*)

## 2.2. HIZKUNTZA IDATZIAri dagozkion kompetentzien lanketa Txanelan

- **Hizkuntza idatzia Txanelan.**

Haur Hezkuntzan hasitako bideari jarraituz eta hautu metodologiko koherentea eginez, irakurmenaren eta idazmenaren oinarritzko prozesuen gaineko kontrol gero eta autonomoagoa eta eraginkorragoa eskuratzen lagundu nahi dio ikasleei Txanela Proiektuak. Beraz, irakurmena eta idazmena hainbat eremutan eta funtzio desberdinekin erabiltzen trebatzeko, askotariko proposamenak aurki daitezke Txanelako materialetan, Izan ere, hizkuntza idatzia autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea ezinbesteko baliabidea baita ideia, iritzi, bizipen eta sentimenduen trukerako, ikasteko eta ezagutzak transmititzeko, gizartean eta kulturaren parte-hartzeko, baita norbearen gozamen eta aberastasunerako ere.

- **Irakurketa prozesua eta Interpretazio orokorra.**



**Antes de leer**

El texto que vas a leer a continuación es un relato de ciencia ficción.

**Antes de leer el texto** completo vas a fijarte en varios aspectos y vas a imaginarte su contenido. Eso te ayudará a comprenderlo mejor.

El cuento pertenece al libro *Cuentos para jugar* del escritor italiano Gianni Rodari. Dale un vistazo al texto completo y contesta:

- ¿Qué peculiaridad tendrá la estructura de este cuento?
- ¿En qué consistirá el juego que plantea Rodari en estos cuentos?

Gianni Rodari (1920-1980)

(Irudia: *Lengua Castellana 5*, 1. unitatea, 29. or.)

### Irakurri ondoren


*jarduera*

- ▶ Testua osorik irakurri ondoren, eduki nagusia bereizten eta hainbat hitzen eta esaldiren esanahia argitzen ahaleginduko zara. Horretarako, erantzun izeiaezu lan-koadernoko galderei, eta komentatu taldekideekin.
  - Ados al zaudete, guztiok, erantzunetan?

Irakurketa pausatua goa egingo duzu ondoren, orrialdez orrialde, hausnarketarako aitzakia ematen duten hainbat xehetasuni erreparatuz.

- ▶ Lehenengo orrialdean kontakizunari sarrera ematen zaio; hego-haizeak jende askori eragiten dizkion portaera eta aldarde-aldaketak aipatzen dira, hain zuzen.
  - Zer esan nahi du *Hego-haize*, *ero haize* esaerak?
- ▶ Hurrengo bi orrialdeetan Mohammed Rachid, istorio honetako protagonista, aurkeztu eta haren etorreraren kontaketa egiten da.
  - Nongoa da Mohammed? Koka ezazu mapa batean haren jaioterria, testuan ematen diren xehetasunak eta atlasen erabilerari buruz ikasitakoak kontuan hartuta.
  - Zer arrazoik bultzatu zuen Mohammed Europara etortzea?
  - Zer paragrafoetatik aurrera bihurtzen da Mohammed bere istorioaren narrazioa? Zertan nabaritzen da testuan narrazioa-aldaketa hori?
  - Sinesgarria iruditzen al zaizu Europara etortzeko moduari buruz dioena? Pentsaren bidez jakin duzunaren arabera, nola iritsi ohi dira Europara Afrika aldetik datozten etorkinak?

Azken bi orrialdeak arretaz irakurri, eta hainbat hitzek testuan duten esanahia argitu, etorkinen bizipenei buruz hitz egiteko parada izango duzu.



(Irudia: *Txanela Globalizatua* 5, 3. unitatea, 37. or.)

• **Atsegina hartzeko irakurmena.**

### Liburu artean

*jarduera*

Ohituta zaude, seguru asko, ipuin-, narrazio-, txiste-, pasadizo-, kondaira- eta komiki-liburuak eskuarteetan izaten eta irakurtzen. Baina horiez gainera, badira poema-liburuak ere.



Zelai berdeen apaingari,  
hori-horiak, metak;  
haizearen besoetan  
alai-alai kometak;  
hitzak nahastuz bizi dira  
jolasean, poetak.  
Joan Mari Irigoien

- ▶ Liburutegietako hautsak astintzeko proposamen berri bat duzu honako hau: bilatu eta eskura itzazu poema-liburuak, eta egin horiei tarte berezi bat gelako liburutegian.
- ▶ Hitz egin ezazu, talde txikitik, poemekin eta poema-liburuekin izandako bizipenez. Solasaldirako gidoi moduan, irakasleak emango dizun galdera-sorta erabil dezakezu.

Pello Añorga   Lurxo Egia   Juan Kruz Igerabide  
Joan Mari Irigoien   Koldo Izagirre   Felipe Juaristi  
Anton Kazabon   Miren Agur Meabe   Karlos Linazasoro  
Joxan Ormazabal   Jon Suarez   Kirmen Uribe  
Elena Odriozola

TXORI KANTARIAK  
POETA HEGALARIAK  
Pello Añorga, Lurxo Egia, Juan Kruz Igerabide,  
Joan Mari Irigoien, Koldo Izagirre, Felipe Juaristi,  
Anton Kazabon, Miren Agur Meabe, Karlos Linazasoro,  
Joxan Ormazabal, Jon Suarez, Kirmen Uribe,  
Elena Odriozola

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 5, 5. unitatea, 15. or.)



• **Informazio iturrien erabilera eta Interpretazio kritikoa.**

Taldekiekin elkarlanean eta libuzainaren edo irakaslearen laguntzarekin, azter itzazu ikastetxeko liburutegian eskura dituzun **informazio-iturriak**. Horretarako, errepara iezaeizu zerrendan agertzen diren iturri-motei:

- Ikusi iturri horiek eskura dituzun ala ez, eta nola banatuta eta antolatuta dauden.
- Ikasi iturri horien erabilerrari buruzko oinarriko arau eta urratsak.
- Aurkitu aztergai dugun gaiari buruzko materialak.



Entziklopedia tematikoak      Aldizkariak      Jakintza gaietako buruzko liburuak      Hiztegi entziklopedikoak

Internet, web-orrialdeak      CD-ROMak      DVDak, bideoak      Argazkiak, kartelak, posterrak...

Interneten informazioa eskuratzeko, oso baliagarria izango zaizu bilatzaileak erabiltzen jakitea.

Jakintza gaietako buruzko liburuak (bitxkeriak)

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 5, 6. unitatea, 27. or.)

*Jarduera*

EDUKIA	
ANIMALIAK NOLA BIZI DIREN	
Bizitzaren hasi	10
Besteekin partekatu	38
Bizitzaren aldeko borroka	48
Defendatzeko moduak	68
Paisaia ageri edo ezkatatu	80
DESBERDINAK GARA	
Lumeko ugaztunak	98
Itsas ugaztunak	120
Intsektuak	128
Hegaztiak	140
Narastiak	154
Arainak, antibioak, moluskuak eta krustazeoak	164
DESAGERTUTAKO ANIMALIAK	
Dinosaurioak	176
Pterosaurioak	184

Aurkibideek liburuetan bilduta daogen informazioaren berri emango dizute. Aurkibideak egoki interpretatu gero, behar dituzun liburuak hobeto hautatzen eta informazioa azkarrago lortzen lagunduko dizute.


Beha iezaeizu honako aurkibide honi, eta erantzun galderei.


- Zein da liburuko gai nagusia? Eta atal bakoitzekoa?
- Zer orrialdetan dakar honako gai hauei buruzko informazioa?
  - Animalien ugalketa
  - Aspaldiko animaliak
  - Itsasoko animaliak
  - Animalien arteko harremanak
  - Suge-motak
  - Animaliek euren burua babesteko erabiltzen dituzten estrategiak

OK, SHERLOCK.

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 5, 6. unitatea, 28. or.)

- **Testuen sintesia.**





Osa ezazu elikagai erregulatzaileei buruzko eskema. Horretarako, aurreko bi orrialdeetako galderen erantzunak eta liburuko irudiak erabil itzazu: gaiari buruzko oinarritzko kontzeptu eta ideiak marra jarraituen gainean idatz itzazu, eta garrantzitsuak iruditzen zaizkizun ideia eta xehetasunak, berriz, puntuzko marren gainean.

**ERREGULATZAILEAK**  
 (nutrizionemendua zuzena)

Eskeman oinarrituta, elikagai erregulatzaileei buruzko ahozko azalpena egin dezakezu. Egin ezazu proba. Ondoren, egin beharreko aldaketak egin, eta idatz ezazu eskema zure koadernoan, begiratu azkar batez erraz irakurtzeko moduan.

(Irudia: *Txanela Globalizatua*, 10.Lan-koadernoan, 21. or.)

- Askotariko testuen ekoizpena (**informazio testuak, argudio testuak, literatur izaeradun testuak**).

① Ahoz azaldu beharrekoa idatzi.

**Azalpen-testu bat idazteko IZAN KONTUAN:**

- Argitu gaia eta helburua.
- Dokumentatu: informazioa kontsultatu, bildu, hautatu eta antolatu.
  - Izan kontuan testuaren egitura (definizioa eta garapena) eta, bereziki, garatu nahi diren azpigiak eta ideia nagusiak.

**DEFINIZIOA**  
**GARAPENA**

- ✓ Azpigiak
- ✓ Azpigiak
- ✓ ...

- Idatzi.
  - Erlazionatutako ideekin, datuekin eta xehetasunekin paragrafoak osatu.
  - Paragrafoetako ideiak lotzeko testu-antolatzaile eta puntuazio-marka egokiak erabili.
- Berrikusi: zuzendu, osatu, egokitu.

IDAZTEAK IDEIAK ARGITZEN ETA ANTOLATZEN LAGUNTZEN DU.

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 6, 6. unitatea, 21. or.)

actividad

Como ya tienes toda la documentación necesaria para tu cuento, ya es hora de que lo escribas.

Escribe el primer borrador de tu cuento teniendo en cuenta la siguiente lista de control:

**LISTA DE CONTROL BÁSICA**

1. Enlaza bien las acciones que escribas. Para ello utiliza correctamente los tiempos verbales y los conectores de tiempo.
2. Incluye algún episodio cómico o escribe todo el relato en clave de humor.
3. Incluye diálogos para que tu relato sea más ágil.
4. Incluye descripciones para dar más detalles de la historia.
  - Para las descripciones de lugar utiliza adjetivos y sigue un orden.
  - Para las descripciones de personajes baséate en los rasgos que habéis definido al inicio de la unidad, (rasgos físicos, rasgos de personalidad). No es necesario que hagas una descripción detallada de cada personaje; destaca únicamente aquellos rasgos que puedan tener alguna importancia en tu relato.
5. Puedes escribir algún párrafo donde aparezca una costumbre o detalle típico del lugar donde se desarrolla la acción: bailar sardanas en Cataluña, comer salchichas en Alemania, bañarse en una sauna en Finlandia... Para ello, busca la información necesaria entre toda la que tienes recopilada. 📄
6. Incluye alguna palabra o expresión en una lengua diferente al castellano.

Comparte tu trabajo con algunos compañeros o compañeras de clase y realiza una primera corrección conjunta.

(Irudia: *Lengua Castellana* 6, 2. unitatea, 44. or.)



## 2.3. HITZIK GABEKO HIZKUNTZEi dagozkien kompetentzien lanketa Txanelan

- **Hitzik gabeko hizkuntzak Txanelan.**

Badira, hitzetan oinarritu gabe, hitzezko hizkuntzaren lagungarri eta aberasgarri ez ezik, hainbatetan hura bezain eraginkorrak, edo are eraginkorragoak, diren beste hizkuntza batzuk ere: hizkuntza zientifiko-matematikoa, keinuen bidezko hizkuntza, musikaren bidezko hizkuntza, hizkuntza plastikoa, hitz abestua, etab. Hizkuntza horien guztien lanketa integratuak toki garrantzitsua du Txanela Proiektuaren baitan, ikasleen ahalmen espresiboa, afektiboa, estetikoa eta ludikoa lantzeko aukera ugariarekin, izan ere ahalmen horiek gozamina, zoriontasuna eta pertsonaren garapen osoa sustatzen baitute.

- **Hizkuntza artistikoak:** hizkuntza plastikoa, musikaren bidezko hizkuntza, gorputz hizkuntza.



(Irudia: *Txanela Globalizatua* 3, 2. unitatea, 32. or.)



2ª propuesta: Al estilo de Chillida.






- 1 Con plastilina moldea un cubo o un prisma rectangular del tamaño de 1/4 de folio.
- 2 Con un punzón marca o agujerea la plastilina.
- 3 Si quieres darle más expresividad, con un cutter vacía diferentes partes del bloque compacto y abre nuevos espacios.
- 4 Ya tienes tu escultura.

Puedes realizar esta obra con arcilla blanca, y cuando se seque pintarla en blanco y negro.


▶ En el CA encontrarás otra propuesta del estilo de Chillida. ¿Te animas a llevarla adelante?

(Irudia: *Lengua Castellana 6*, 1. unitatea, 28. or.)


### TXIRULA-JOTZAILEA

Gogoan izan eskalan agertzen diren noten artean naturalak eta aldakariak tartekatzen direla. Adibidez, fa#.

Fa disearen edo sostenituaren hotsa fa naturalarena baino zertxobait altuagoa da, baina sol notarena baino baxuagoa.



DO RE MI FA FA# SOL LA SI DO RE MI



Idatzi pentagraman xirula hauetan adierazten diren notak.

1.5

7

(Irudia: *Musika Lan-koaderno 6*, 7. or.)

### Bertsoz

Jarduera

Hitzak du garrantzia bertsozaritzan, kantatutako hitzak. Baina hitzen bidez esaten dutena indartzeko edo osatzeko, keinu, mugimendu eta bestelako gorputz-espresiorako baliabiderik erabiltzen al dute bertsoariak?

Ikus ezazu DVDko bertso-saioa, eta erreparatu bertsoariak erabiltzen dituzten keinu, mugimendu, begirada eta bestelako baliabide adierazkorrei. Ondoren, hitz egin ikusitakoaz, taldean.

- Aurpegiara, mugimendu eta bestelako keinu adierazkorrik erabiltzen al dute bi bertsoariak? Noiz eta zer adierazteko? Bietakoren bat bestea baino adierazkorragoa iruditzen al zaizu?

Ikas itzazu buruz DVDko bertsoak edo beste bertso-sortaren bat, eta abestu keinu adierazkor eta egokiez lagundurik.

(Irudia: Txanela Globalizatua 5, 5. unitatea, 47. or.)

- Hizkuntza matematikoa eta hizkuntza zientifikoa:** zenbakizko hizkuntza, hizkuntza grafikoa, sinbolikoa...

Klimaren azterketa egiteko, lau alderdi izango dituzu kontuan: **zeruaren egoera** (oskarbi, hodeitsu, goibel); **haizearen norabidea** (iparra, hegoa, ekia, mendebala) eta **indarra** (leuna, gogorra, ekaitza); **tenperatura** eta **prezipitazioak**.

Datu hauek Ttonttorgaineko meteorologia-zentroan bildutakoak dira. Beheko grafikoak datu horien arabera osatu ditugu. Beha lezaiezu eta saiatu interpretatzen.

EGUNAK	al. as. az. og. or.					al. as. az. og. or.				
	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	10.
ZERUA	Oskarbi	Hodeitsu	Goibel							
HAIZEA:	NORABIDEA (I, H, E, M)					I I I I I I I H				
INDARRA	Leuna Gogorra Ekaitza					L L L L L L L L L L				
TENPERATURA (°C)	19	23	23	20	22	23	17	19	20	24
PREZIPITAZIOAK (mm)	6	3	0	0	0	2	4	7	8	0

**Temperatura °C**

**Prezipitazioak**

Hemen dituzun grafikoak interpretatzeko, erantzun honako galderak:

- Egunero tenperatura bera izan al dute? Noiz egin du bero gehien? Eta bero gutxien? Egun hauetan tenperaturak norantz egin du, gorantz ala beherantz? Tenperatura horiek ikusita, zure ustez, udako edo neguko datuak dira? Zergatik?
- Euriaren grafikoari erreparatu eta lehen hiru galderak erantzun, "tenperatura" eta "bero" jartzen duen tokian "euri" edo "euri-kopurua" esanez.
- Grafikoak eraikitzea eta ondo interpretatzea garrantzitsua denez, irakasleak emandako datuekin osa itzazu hainbat grafiko zure koadernoan, eta interpretatu.

(Irudia: Txanela Globalizatua 4, 1. unitatea, 28. or.)


✓ Zer adierazten dute klimogramek? Zergatik izan daitezke baliagarriak bidaia bat antolatzeko orduan?

✓ Hemen urte jakin batean Donostian bildutako datuak dituzu. Osa ezazu zure koordenan datu horiei dagokien klimograma, eta bete taulan hutsik dauden koadroak.

**DONOSTIA**

Hilabeteak	Urt.	Ots.	Mar.	Ap.	Mai.	Ek.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Az.	Ab.	Urteko euriak	Urteko b.b.t*
Hilabeteko euria mm	144	127	126	162	129	92	87	112	116	148	168	142		---
Hileko batez besteko tenperaturak °C	8	9	10	12	15,5	18	20	20	18,5	14	12	9,5	---	---

62



(Irudia: *Txanela Globalizatua* 6, 2. unitatea, 62. or.)

## 2.4. GIZARTE KOMUNIKABIDEEN BALIABIDEei dagozkien kompetentzien lanketa Txanelan

- **Gizarte komunikabideak Txanelan.**

Gizarte hedabideek garrantzi handia dute informazioa eskuratzeko moduetan, gizarte trukean, entretenimenduan, ideologiaren eta balioen transmisioan, eta iritzia eratzean. Hedabideek, eta bereziki ikus-entzunezko hizkuntzak, inguruko errealitatea barneratzeko, interpretatzeko eta bertan esku hartzeko moduan erabateko eragina dute. Hizkuntza hori ezagutzea, interpretatzea eta horren bidez zuzen adieraztea atzeratu ezin den hezkuntza eginkizuna da gaur egungo munduan komunikatu eta funtzionatu ahal izateko. Txanela Proiektuan konstante bat da hedabideen interpretazioa eta erabilera ("Prentsa Txokoa", komunikabideen eremuko testuen interpretazio eta ekoizpena...). Ikus-entzunezko hizkuntzaren ezagutza eta erabileran ere lehen urratsak emango ditu ikasleak Txanelako proposamenen eskutik.

- **Mezu mediatikoak interpretatzea eta sortzea, Hedabideen ezagutza.**





**Jarduera**

Munduko gertaerei buruzko informazioa gureganatzeko esku-eskura ditugun bitartekoak dira egunkariak.

Egunkarian, ez zaie garrantzi bera ematen albiste guztiei. Azter ezazu hemen behean duzun egunkariko lehen orrialdea, eta behatu albiste bakoitzaren kokalekua, titularraren tamainari eta letra motari, eman dioten tarteari eta argazkiari.

- Zein albisteri eman zaio garrantzirik handiena? Zergatik diozu hori?
- Ba al da munduko biztanleen arazoekin zerikusirik duen albisterik? Zenbateko garrantzia eman diote?

**berria**

ETENIK BAKO ETORRIN OLDEA EUROPARA

**Goseak, gerrak eta eritasunek 285.000 lagun hil dituzte Darfuren hiru urtean**

Martengrako independentisten gerrakoa oinarri duen Serbiak

Luzotzaren ligatik hartu aurreratu da EAH nahi duen aldi batean egongo da

**Bruesa Gipuzkoa, ACB Ligara**

Eskura itzazu azken egunotako egunkariak eta erabaki, taldekideekin batera, zein diren lehen orrialdeetako albisterik garrantzitsuenak.

- Ba al da albiste horien artean munduko populazioari edo munduko biztanleek dituzten arazoiei buruzkorik? Zer gai zehatzi buruzkoak dira?

@ Egunkari gehienek, paperean inprimatutako aleaz gainera, Internet bitartez kontsulta daitekeen edizio digitala ere badute. Edizio horiek erabiltzeak gauzak errazago bilatzeko aukera eman diezazuke.

Albisteez gainera, beste zer elementuk osatuta dago goiko egunkariko lehen orrialdea? Zer helburu edo zeregin du horietako bakoitzak?

Egunkarien helburu nagusia informazioa ematea bada ere, irakurlea entretenitzea, norbaiten intzia jakinaraztea edo zerbaiten publizitatea egitea helburu duten testuak ere agertzen dira egunkarietako orrialdeetan.

Lehen orrialdeetako jarduerak: 1. Iratzez egunak, 2. Lehen orrialde berrak, 3. Lehen orrialde nagusia, 4. Zuzenbidearen orrialde, 5. Lehen orrialdearen azken orrialde, 6. Lehen orrialdearen azken orrialde, 7. Lehen orrialdearen azken orrialde, 8. Lehen orrialdearen azken orrialde.

16

(Irudia: Txanela Globalizatua 5, 3. unitatea, 16. or.)

Seleccionad las noticias sobre la inmigración europea que hayáis recogido para el kiosco de prensa e informaos sobre este tema. Cada uno de vosotros elegirá una noticia y la leerá. Si tenéis dificultades de comprensión, realizad una segunda lectura en casa con ayuda de vuestros padres o preguntad vuestras dudas al profesor:

## KIOSCO DE PRENSA

**Los inmigrantes con buena preparación académica y que dominen el francés tendrán privilegios para conseguir la residencia en Francia.**

La nueva Ley de Extranjería distingue entre inmigrantes de primera e inmigrantes de segunda

José Carlos García Fajardo CCS - España 23 de enero de 2006

**Esclavitud en Navarra**

En los últimos meses varios empresarios han sido detenidos en Navarra por delitos contra los derechos de los trabajadores inmigrantes

Landeia, ekaina-uztaila/junio-julio 2007

**Bruselas, mestiza**

Los extranjeros representan ya la mitad de la población de la capital belga

El correo, 1 de julio de 2007

**"Pakelona" la emisora en urdu de miles de paquistanies**

Un empresario ha creado una cadena de radio en Barcelona

El país, 12 de noviembre de 2007

26

(Irudia: *Lengua Castellana 6*, 2. unitatea, 26. or.)

## 2.5. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIei dagozkien konpetentzien lanketa Txanelan

- **IKTak, komunikatzen ikasteko baliabide**

IKTak, nagusiki, KOMUNIKATZEN IKASTEKO baliabide garrantzitsu eta eraginkorrak dira. IKTen erabilera eskola-jardueretan txertatzean, beraz, egiteko edo xede nagusi hori gogoan izan behar da: KOMUNIKATZEN IKASTEKO BALIABIDE GISA ERABILI BEHAR DA.

- **IKTen funtzio nagusia**

IKTak, esan gabe doa, komunikaziorako lagungarri eta laguntzaile izateaz gainera, beste hainbat oinarritzko konpetentzia garatzeko ere bitarteko eraginkor izan daitezke eta, jakina, dira.

- **ZER**

- Ohiko tresna eta **teknika-baliabideak** trebeki erabili.

- **NOLA**

- Erantzukizunez, sormenez eta kritikoki.

- **ZERTARAKO**

- Informazio mota oro ekoizteko, biltegitratzeko, berreskuratzeke, lantzeko eta komunikatzeko.

- Norbera eta gizartea hobeto garatzeko egokienak diren informazioak bilatzeko, balioesteko, hautatzeko eta barneratzeke.

- Eta hori guztia, informazioa ezagutza bihurtzeko.

- **Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak**

IKTen funtzio nagusia kontuan hartuta, Lehen Hezkuntzarako (hamabi urte arteko eskolaldia) honako IKT konpetentzia hauek proposatzen ditugu:

**A. Sistema informatikoaren kontrola.**

Ordenagailua eta ordenagailu-sarea lan-bitarteko eta -eremu gisa ezagutzea eta bereiztea, hardwareko oinarritzko elementuak behar bezala menderatzea, eta baita sistema eragile estandar baten oinarritzko terminologia eta funtzioak ere.

**B. Informazioaren kudeaketa eraginkorra.**

Hiztegi eta entziklopedia elektronikoetan eta software didaktikoetan informazio-bilaketa gidatu eta zehatzak egiten jakitea, eta Interneteko nabigatzaile baten oinarritzko funtzioez baliatzen, eta bilaketa soila ez ezik, zehatzak ere egitea.

**D. Informazioaren eta ezagutzaren komunikazioa eta elkartrukea.**

Posta elektronikoko estandar baten eta Interneteko beste komunikazio-zerbitzuen oinarriko funtzioak (mezularitza, txatak, foroak, blogak, wikiak...) behar bezala erabiltzea.

#### **E. Informazioa prozesatzea eta edizioa.**

Informazioa (testua, grafikoak, soinua, animazioa, bideoa) eraikitzeko eta editatzeko softwarea erabiltzen, eta informazioa testu-prozesadoreetan, aurkezpenetan eta web-orrietan integratzen jakitea.

#### **F. IKT baliabideen erabilera irekia eta arduratsua.**


IKT baliabideak erabiltzerakoan jakin-minez eta arduraz jokatzeko, ikasteko jarrera irekia bultzatuz, komunikazioetan errespetua zainduz eta erabileraren iraupena kontrolatuz.

#### **G. Ezagutza eraikitzea eta problemak ebaztea.**

IKT bidez lortutako trebetasun praktikoak eta kognitiboak, eskola-gaietan edo eskolaz kanpokoetan aplikatzea, ideiak birlantzeko, osatzeko edo problemak ebazteko.

IKT konpetentzia orokor bakoitza haurren adinetara, zikloka, egokitu dugu. Horrekin batera, ziklo bakoitzera egokitutako konpetentziak garatzeko edukiak (kontzeptuak-prozedurak-jarrerak) eta ebaluaziorako irizpideak zehaztu ditugu.

IKT currículu proposamen osoa "**IKT curriculuma – Lehen Hezkuntzarako proposamena**" izeneko dokumentuan ikus daiteke




(Esteka edo lotura, dokumentua eskuratzeko)

- **IKT konpetentziak Txanela proiektuan**

**IKT konpetentzien garapen curricularra** proiektu pedagogiko jakin baten bitartez - **Txanela proiektua** – gauzatzen da. Ikasleei proposatzen zaizkien hainbat jarduera IKT baliabideak erabiliz egiten dira, ziklo




bakoitzerako ezarritako IKT kompetentzien lanketa eta garapena bermatuz.



(Irudia: *Txanela Globalizatua* 6, 1. unitatea, 56. or.)

IKT curriculumaren azken zehaztapen hau, **TXANELA.NET** webgunean egiten da, IKT jarduerak deritzaneren bitartez, hain zuzen.



The screenshot shows the Txanela webgunea interface. At the top left is the Txanela logo and 'webgunea'. At the top right is the 'Hastolen Elkartea' logo. Below the header is a navigation bar with 'Hasierako orria' and 'Erabilgarri diren gidak'. The main content area is titled '1. zikloa - 1. maila' and '1. unitate didaktikoa'. On the left is a vertical menu with '1. maila', '1. unitatea', '2. unitatea', '3. unitatea', '4. unitatea', and '5. unitatea'. To the right is a horizontal sequence of 11 numbered boxes (1-11). Below boxes 3, 5, 7, 8, and 10 are green circles containing the numbers 1, 2, 3, 4, and 5 respectively. At the bottom of the diagram, it says 'Ohiko jarduerak urdinez adierazten dira eta IKT bidezkoak berdez.'

Jarduera horien bidez, IKT kompetentziak eta dagozkien edukiak lantzen dira, Txanelako ohiko jardueren testuinguruan.

**TXANELA.NET**ek irakaslea zein ikaslea ditu helburu eta bakoitzari egokitutako sarbideak eskaintzen ditu.



The screenshot shows the 'ERABILTZAILEREN MOTAK' section. It has two items: 'Irakasleen txokoa' with a graduation cap icon and 'Ikasleen txokoa' with an icon of two people. Each item has a 'SARRITU >>' button.

**Irakasleari**, gida didaktikoa jardueraz-jarduera zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio.

**Ikasleari**, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio.

### **Posta elektronikoa, bloga eta wikia**

Ikasle bakoitzari **posta elektronikoko kontu bana** ematen zaio, dokumentuak editatzeko eta aurkezpenak egiteko web-aplikazio batekin batera.

Azkenik, proposatzen zaizkien hainbat IKT jarduera burutzeko behar-beharrezkoa direnez, **gela bakoitzak** bere **Bloga eta Wikia** du, horretarako espreski sortuak ditugun plataformen bitartez.



## 2.6. KOMPETENTZIA SOZIO-KOMUNIKATIBO Ari dagozkion kompetentzien lanketa Txanelan

- **Hausnarketa sozio-komunikatiboa Txanelan.**

XXI. mendeko komunikazio errealitate gero eta konplexuagoak beharrezkoa egiten du mezuen interpretazio kritikorako kompetentzia garatzea, eta hedabide zein euskarri telematikoak erantzukizunez erabiltzea. Bestalde, euskaldun bezala aurrera egiteko, ezinbestekoa dugu gizartean ematen diren egoera soziolinguistiko anitzen interpretazio kritikoa eginez eta eleaniztasuna balioetsiz, euskararen erabilerarako eta normalizatorako erantzukizunez jokatzeko.

Gizartearen errealitate sozio-komunikatiboaren interpretazio kritikorako eta errealitate horretan erantzukizunez parte hartzen ikasteko lehen urratsak landuko dira Txanela Proiektuan.

- **Kontzientzia mediatikoa:** mezuen interpretazio kritikoa, eta hedabideen eta euskarri telematikoaren erabileran erantzukizuna.

Honela hasten da irakurra:

KOMUNIKAZIO ARAZO BAT

Joan zen astean, lagunekin txateatzen ari nintzen ordenagailuan. Normal, arratsaldero bezala. Bat-batean, aita sartu zen nire gelara. Burua luzatu zuen pantailara. Nik purrustada bota nion, haserre.

- Zer izan daiteke komunikazio arazo bat?
- Noren artekoa izango ote da izenburuak aipatzen duen arazo honi?
- Zer eginkizun ote du testuan aipatu dugun saharar agureak?



47

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 5, 1. unitatea, 26. or.)

*jarduera*

Gai erakargarria duzue bideo-jokoena, elkarrizketan aritu eta hainbat hausnarketa egiteko.

- Ipuina irakurrita, ez zaizu zaila gertatuko *Bidaia miresgarria* espazio sakonera bideo-jokoa zertan datzan imajinatzea. Zein izango da joko horren helburu nagusia? Zer urrats egin beharko dira jolasteko?
- Nolako bideo-jokoak ezagutzen dituzu? Zein dituzu gustukoak?
- Gai al zara *bideo-jokoen zulo beltzean* erori gabe jolasteko?
- Zein dira ordenagailuaren alde onak? Eta alde txarrak?

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 6, 2. unitatea, 47. or.)

- **Kontzientzia soziolinguistikoa:** ingurune soziolinguistikoaren interpretazio kritikoa, euskararen normalizazioarekiko erantzukizuna eta eleaniztasunaren balioespena.

*Europa bat, ehun hizkuntza*

**Hiztunak eta hizkuntzak**

*jarduera*

Zer hizkuntzatan hitz egiten dugu europarrok? Zer hizkuntza erabiltzen ditugu? Nola-ko egoerei aurre egin behar izaten diegu hizkuntza bat baino gehiago erabiltzearen ondorioz?

▶ Taldeka egiteko ikerketa txiki bat proposatzen zaizu segidan. Informazio-iturrien erabilera ikasitakoa praktikan jarri, bila ezazu behar duzun informazioa eta osatu Europako hizkuntzen mapa.

Luze joko lizuke Europako hizkuntza guztiak zerrendatu eta mapan kokatzea. Beraz, muga zaitez honako hauetara:

- Zure inguruko herrialdeetako eta estatuetakoko hizkuntzak.
- Horiez gainera, elkarlanean prestatzen ari zaren bidaia-proiektuko herrietako edo estatuetakoko hizkuntzak.



(Irudia: *Txanela Globalizatua* 6, 2. unitatea, 50. or.)



Ikaskideen euskararen jatorria modu grafikoan adieraziko duen ziklograma osatuko duzu orain.

- Hasteko, bete ezazu beheko taulan eskatzen zaizkizun datuak.
- Ondoren, saia zaitez zirkunferentzia zatitan banatzen, tarta bat balitz bezala, ikasle bakoitzarentzako zati bat eginda.
- Gero, margo itzazu taulan idatzitako bi kopuruek adierazten dituzten beste zati bakoitzari dagokion kolorearekin.

	Kopurua
Euskara etxean ikasita datozenak	
Euskara ikastolan ikasi dutenak	

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 3, 4. unitatea, 20. or.)

